

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIAKO UDALAREN 2021EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Joan den azaroaren 6an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Donostiako Udalaren fiskalizazio txostena; fiskalizazio lanak honako hauen kontuak besarkatu ditu: Donostiako Udalaren kontuak, haren hiru erakunde autonomoenak (DonostiaTIK, Kiroletako Udal Patronatua eta Musika eta Dantzako Udal Eskola), haren bi enpresa-erakunde publikoenak (Etxebizitza eta Donostia Kultura, San Telmo Museoa SAren % 100eko jabea, eta Victoria Eugenia Antzokia, SA) eta haren zazpi sozietate publikoenak (Eguskiza SA Higiezin Sozietatea, Donostiako Tranbia Konpainia SA, Donostiako Hileta Zerbitzuak SA, Donostiako Sustapena SA, Donostia Turismoa, SA, Anoeta Kiroldegia SA eta Bainuetxearen Sozietatea SL).

2021eko ekitaldiko Urteko Kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doitzeak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 33,1 milioi euroan murriztuko litzateke. Gainera, Udalaren Balantzeko Ibilgetuaren eta Lurraren ondare publikoaren saldoek ez dute abenduaren 31n ondasun-zerrendan barne hartutako ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen eta erakunde autonomoetan ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik jakiteko Ibilgetuko zenbatekoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten. Azkenik, Udalaren Balantzearen epe luzerako finantza-inbertsioen balorazioari buruzko ziurgabetasuna adierazi da Eguskiza, SA higiezin sozietateari dagokionez, ez baitago sozietatearen aktiboa osatzen duten lurren baloraziorik.

**Finantza egoerari** dagokionez, Epaitegiak adierazi du Udalak 2021ean bere aurrezki gordina 2020 baino lehenago zuen mailara ekarri duela eta zor maila 34,7 milioi eurotan murriztu duela.

Udalak, bere erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2021ean beren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, nahiz eta akatsak antzeman diren **langileen arloan** (udalak PFEZtik salbuetsitako lan-etekintzat hartu ditu ordaindutako erretiro aurreraturako primak) eta **kontratazioaren arloan** (zerbitzu-emakidako kontratu batean eta 5 zerbitzu-kontratutan kontratu-estaldurarik gabeko gastua gauzatu du; eta laguntza teknikoko kontratu batean obren aldaketa bat onartu zen, baldintza-agirietan jasotako kontratu-xedea aldatuz).